

Ihauterietako antenak

Beheko argazkian ikusten duzun hori zer den galdetuz gero, irakurle, gehiegi begiratu gabe 'zuhaitza' erantzungo zenuke, ia seguru; konifero-itxura duela ere esango zeniguke, noski. Ba ez. Epoxi erretxinaz 'mozorrotutako' antena da, antzik hartzen ez bazaio ere. ARCNET, Larson eta AT&T izeneko konpainia estatubatuarrei otu zaie ideia. Ikusita telefono

Argazkian dakusazun "zuhaitza" epoxi erretxinaz "mozorrotutako" antena duzu, antzik hartzen ez bazaio ere.



higikorrek gero eta ugariago direla bertan eta horrek errepetidore eta antena-sarea handiagotzea ekarri duela, azpiegitura horrek sortzen duen arazo estetikoari modu horretan jarri nahi zaio konponbidea. Kontua da antenek, oso luzeak izanik, inpaktu handia sortzen dutela bazter guztietan. Kontua egin dezagun, soilik EEBBetan 38 milioi lagun inguruk erabiltzen duela telefono higikorra. Antenak perretxikoak udazkenean bezala ugaritu dira bazter guztietan eta, dakigunez, horrek inpaktu ekologiko itzela sortzen du. Hiru konpainiek proposatu duten irtenbidea ez da sobera garestia eta, bistan denez, arazoa saihesteko balio du. Hurrengo hilabetetan palmondo- eta kaktus-itxurako "mozorroak" merkaturatuko direla iragarri dute.

Martitzerako ibilgailua

Goiko irudian datorren uztaillaren 4an (Estatu Batuetako independentzi egunean) Martitzen pausatu behar duen ibilgailua erakusten da. Joan den abenduaren 4an jaurtiki zen Mars Pathfinder zunda eta planetaren inguruan orbitatzen ibili gabe zuzenean jaitsi behar du Martitzeko gainazalera. Martitzeratu aurretik jausgailuaz abiadura moteldu eta lurrean botea



Hona uztaillaren 4an Martitzen pausatu behar duen "rover" ibilgailuaren irudia.

egingo du, horretarako "airbag" batzuk dituelako. Orduan zunda lorea bezala zabalduko da eta "rover" ibilgailuak irtingo du.

Pantaila lau eta mehea

Telebistagintzan diharduten Philips, Grundig eta Fujitsu etxeak elkartu egin dira pantaila berria sortzeko, eta emaitza Planatron izendatu duten pantaila lau eta mehea izan da. Plasmaz funtzionatzen duena da eta 16/9 formatua du (92 x 52 zentimetro edo metroa inguruko diagonal duena). Lodieran 10 zentimetro baino ez dituen pantaila honetan azpimarratzekoak dira argitasuna eta koloreen kalitatea. Pantaila elektrolumineszenteak eta kristal likidozkoak baino hobea da inola ere. Planatron-en gainazala tutu fluoreszente mikroskopikoz osaturik dago. Mikrolanpara hauek bakoitzean gas baten izpi ultramoreak

emititzen ditu tentsio elektrikoa ezartzen zaiotz. Lanparatxo bakoitzak estaldura fluoreszentea du izpi ultramoreak izpi ikuskor bihurtzeko. Kolore konposatuak osatzeko behar diren oinarriko hiru koloreak sortzeko, lanparatxo batzuek izpi gorriak igortzeko estaldura dute, beste batzuek berdeak igortzeko eta gainerakoek urdina igortzeko. Pantaila beraz, lanpara fluoreszente




Planatron pantailak 10 zentimetroko lodiera du eta paretan eseki daiteke.

gorri, berde eta urdinezko mosaiko lau da. Magnetoskopiaoren tamainako kaxa elektronikoko batek, magnetoskopioren edo beste edozein bideo-iturritatik ateratako bideo-irudia zenbaitu egiten du eta lanpara fluoreszenteak piz-



tea eta itzaltzea agintzen du, lanpara bakoitzaren pixela delarik.

Planatron-aren inguruko bideo-sistema osoarentzat forma desberdinak pentsatzen ari dira. Philips etxeak pantaila horman esekita kokatu nahi du eta kaxa elektronikoa altzarian, hi-fi-ko katean beste edozein elementu bailitzan. Grundig etxeak era tradizionalagoan aurkeztu nahi du. Pantaila oinarri baten gainean egongo litzateke eta oinarriaren legoke kaxa elektronikoa. Plasmazko sistema berri honen abantaila nagusiak bi dira: batetik pantaila mehea izatea eta bestetik oso pantaila laua izatea. Bere oztopoa ere badu ordea: prezioa, hain zuzen. 1,5 milioi pezeta edo 60.000 libera balio du eta oraingoz hodi kato-dikoaren sistemak urte batzuetan iraungo duela ikusten da.



Australiako Mineral Control Instrumentation etxeak fabrikara zinta garraiatzaileen sartzen diren oinarriko materialak erradiografiatzeko aparatua prestatu du.

diografiatzeko aparatua prestatu du. Ohizko metodoan laginak hartu eta analizatu egiten dira, baina erradiografiatzeko hau askoz ere azkarragoa eta fidagarriagoa da. *Geoscan* izeneko erradiografia-makinaren bidez fabrikazio-prozesua hobeto dosifikatzea lortzen da.

Distantziak errespetatuz

Auto-gidariak errepidean doazenean askotan ez dituzte errespetatzen ibilgailuen artean mantendu behar diren gutxieneko distantziak, nahiz eta arazo hori istripu-

-eragile garrantzitsua izan. Horregatik Hella eta Mercedes Benz etxeek errepideko ibilgailu arteko distantziak neurtu eta erregulatze-ko proiektua prestatu dute.

2000. urte inguruan automobil batzuek radarra izango dute aurrean erradiadorearen parean. Radar horrek igorritako seinalea oztupo batzuek (aurreko ibilgailuak edo bihur-gunetako zedarriek) isladatu egingo dute. Bueltan etorritako seinalea analizatuta, sistemak oztupoa ezagutu eta automobileko motoreari, balaztei edo azeleragailuari eragingo die, "distantziak errespetatzearen". Gidariak bolanteari eragitearekin



Erradiadorearen parean dagoen zirkulu zuria da Hella eta Mercedes Benz-ek prestatutako radarra.

aski izango du, baina ustekaberen bat denean sistemak gidariari automobil osoko agintea bere esku har dezala eskatuko dio.

Magnesioa automobiletan

Automobiletan poluzioa saihesteko sistema bat erregai gutxi kontsumitzea da. Gutxi kontsumitzeko ordea, automobilak arina izan



Passat B5 modeloan ipiniko duten abiadura-kaxako karterrak ohizkoak baino % 34 gutxiago pisatuko du.

behar du eta horretarako aproposa da magnesioa erabiltzea; 1,8 g/cm³-ko dentsitatea besterik ez baitu.

Volkswagen etxeak Passat B5 modeloarentzat abiadura-kaxako karterra magnesioz (eta ez aluminioz) egiten hasi da, pisua % 34 txikiagoa delako.



Zementua erradiografiatzeko makina

Zementu-fabriketan ateratzen den produktuaren kalitatean zerikusia dute erabiltzen diren karaitzaren eta buztinaren proportzioek eta osagaien purutasunak. Horregatik Australiako Mineral Control Instrumentation etxeak fabrikara zinta garraiatzailean sartzen diren oinarriko materialak erra-